

Maileguaren eskritura honako  
Notarioaren aurrean egiletsi  
da.....  
..... hurrengoaren  
protokolorako:.....  
.....

Data: UUUU/HH/EE.

OHIKO ETXEBIZITZA EROSTEKO HIPOTEKA BERMEDUN MAILEGUAREN ORDAINSARIA,  
PERTSONA FISIKOAREN OHIKO ETXEBIZITZAREN BERMEAREKIN

HONI ESLEITUTA:

HELBURUA: OHIKO ETXEBIZITZAREN EROSKETA

ZENBATEKOA:

MAILEGUAREN ERABILGARRITASUNA: - "Aurre-hipoteka" sistemarekin: IZENPETZEAN

- "Aurre-hipoteka" sistemarik gabe: IZENPETZEAN

- Banku-kontuan ordainduta

EPEA: 30 URTE

AMORTIZAZIOARAKO: hileroko ordaintzeko 360 kuotatan kapitala eta interesak barne, frantses amortizazio-sistemaren arabera kalkulatuta, aldi bakoitzean dagokion tasan. %3koak, 12 hilabeteko epean, 549,37 eurokoak dira haietako bakoitza; eta %3,6koak, gainerako epean, 591,21 eurokoak haietako bakoitza.

OHIKO INTERESAK: lehenengo 12 hilabeteetan formalizazio-datatik zenbatuta "HASIERAKO TASA" deituko duguna aplikatuko da, hau da, urteko %3 nominalean. Ondoren eta mugaegunera arte, "TASA FINKOA" deituko duguna aplikatuko da, urteko %3,6 nominalean.

Aipatutako "TASA FINKOA" 0,4 puntutan gutxituko da, betiere hurrengo A eta B baldintzak aldi berean betetzen badira:

A) Soldatapeko diru-sarrerak dituzten maileguaren hartzaileek Kutxabank SAn interes-tasa aldatzen den egun bakoitzaren aurreko azken hamabi hilabeteetan haien nomina, pentsio edo langabeziako prestazioa etengabe edukitzea, edo aldizka soldatapeko diru-sarrerarik ez duten mailegu-hartzaileentzat. Gainera beste baldintza hau bete behar da: Mailegu-hartzaileen aurrezki-kontuen eta ageriko kontuen batez besteko saldoa interes-tasa aldatzen den egun bakoitzaren aurreko azken hamabi hilabeteetan 2.000,00 eurokoa edo gehiagokoa izango da eta aldi berean mailegu-hartzaileak Kutxabank SAn Autonomoen Erregimeneko ordainagiriak edo Gizarte Segurantzako kuotak helbideratuta edukitzea.

B) Interes-tasa aldatzen den egun bakoitzaren aurreko azken hamabi hilabeteetan etengabe gutxienez mailegu-hartzaileetako batek aldi berean Kutxabank SAn indarreko kreditu- edo zordunketa-txartel baten titularra izan behar du. Gainera, maileguaren titular guztien txartelen

aldi berean saltegitan egindako eta Kutxabank SAren indarreko kreditu- edo zordunketa-txartelen bitartez ordaindutako kontsumoen batura, 1.200,00 eurokoa edo gehiagokoa izan behar dute.

Gainera, epigrafe honen hasieran adierazitako diferentziala 0,25 puntutan gutxituko da hurrengo baldintza betez gero: tasa berrikusteko edo baldintzak betetzeko datan mailegu-hartzaile guztiek 35 urte baino gutxiago eduki behar dute.

Aurreko A eta B baldintzak betetzen badira, adierazitako TASA FINKOA gutxitzen ibili ahal izango da jarraian azaltzen den bezala, guztizko murrizketa gehieneko bateraino, aurreko epean adierazitako 1,00 puntukoa eta 0,75 puntukoa barne hartuta, mailegu-hartzaileetako batek gutxienez 35 urte betetzen duen egunetik hasita.

Hala, epigrafe honen hasieran aipaturiko TASA FINKOA 0,1 puntutan murriztuko da, baldin eta interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe, mailegu-hartzaileetako bat honako aseguruetako baten titularra bada: Kutxabank Etxebizitza Asegurua, Kutxabank Estra Etxebizitza Asegurua edo Kutxabank Aseguradora Cia de Seguros y Reaseguros SAUren bidez kontratatutako Kutxabank Etxe Aseguru Babestua.

Epigrafe honen hasieran aipaturiko TASA FINKOA 0,1 puntutan murriztuko da, baldin eta interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe, mailegu-hartzaileetako bat honako aseguruetako baten titularra bada: Kutxabank Bizi Asegurua, Kutxabank Urrezko Bizi Asegurua, Kutxabank Plus Bizi Asegurua edota Kutxabank Aseguradora Cia de Seguros y Reaseguros SAUren bidez kontratatutako Maileguak Amortizatze Kutxabank Aseguru Babestua. Maileguaren titularrek kontratatutako aseguru guztiak batuta, gutxienez 150.000,00 euro (edota maileguaren nominalaren % 100, baldin eta zenbatekoa txikiagoa izango balitz) izan beharko dituzte aseguraturuta.

Aipaturiko TASA FINKOA 0,1 puntutan murriztuko da, baldin eta interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe, mailegu-hartzaileetako bat honako aseguruetako baten titularra bada: Ordainketak Babesteko Kutxabank Asegurua edo Kutxabank Aseguradora Cia de Seguros y Reaseguros SAUren bidez kontratatutako Ordainketak Babesteko Kutxabank Aseguru Babestua.

Aipaturiko TASA FINKOA 0,1 puntutan murriztuko da, baldin eta interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe, mailegu-hartzaileetako bat Liberty Seguros, Compañía de Seguros y Reaseguros S.Aren bidez kontratatutako Kutxabank Auto Aseguruaren titularra bada.

Aipaturiko TASA FINKOA 0,1 puntutan murriztuko da, baldin eta interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe, mailegu-hartzaileetako bat Kutxabank SA erakunde merkaturatzaile eta gordailuzain nahiz Kutxabank Vida y Pensiones Cía. de Seguros y Reaseguros SAU erakunde kudeatzaile dituen indarreko Banakako Pentsio plan baten titularra bada edo Kutxabank SA bazkide sustatzaile duen Baskepensiones BGAeko Erakundearen Banakako Aurreikuspen plan baten titularra bada. Gainera, maileguaren titular guztiek aipaturiko aldi edo aipaturiko planetara egindako ekarpenek, denak bilduta, 1.000,00 eurokoak edo handiagoak izan beharko dute, hala badagokio, zenbateko horri kenduta aldi

horretan berreskuratutako zenbatekoak, jasotako prestazio edo aparteko likidezia-balizko egoerak, eta kitatu edo mobilizatutako eskubide ekonomiko edo bateratuak.

Aurretik aipatutako baldintzak betetzen direla URTEAN BEHIN berrikusiko da, hurrengo urtean aipatutako murrizketa ezarri ala ez erabakitzeari begira.

Hitzartu berri dena kontuan hartuta ere, aurreko ataletan aipaturiko murrizketa bat bera ere ez da ezarriko baldin eta interes-tasa aldatzeko egunean edota baldintzak betetzen direla berrikusteko egunean, aipaturiko maileguan mugaeguneratu eta ordaindu gabeko zenbatekorik badago, ordainketa-egoera sortu eta 90 eguneko antzinatasunarekin.

Aipatu berri ditugun interes-tasaren murrizketetako bakoitza ezartzeari utziko zaio murrizketa ezartzeko baldintzak betetzei utzi ondoren, interes-tasa edo baldintzak betetzen direla berrikusteko hurrengo datan. Baldintzak berriro betez gero, ordea, hurrengo berrikusketa-datan berriro ere ezarriko dira.

INTERESAK LIKIDATZEKO ALDIZKAKOTASUNA: HILEAN BEHIN

IREKITZE KOMISIOA: 0,00 Euro Eskritura izenpetzean ordainduko da.

AZTERKETA KOMISIOA: 0,00 euro, eskritura sinatzean ordaindu beharrekoak.

ATZERA EGITEAGATIKO KONPENTSAZIOA: Amortizazio partziala: %0,5 lehen bost urteetan eta %0,25 gainerako aldian.

%20a salbuetsita. Amortizazioa guztira: %0,5 lehen bost urteetan eta %0,25 gainerako aldian.

INTERES TASAREN ARRISKUAGATIKO KONPENTSAZIOA:

Kitapen osoak edo partzialak Bankuari kapitala galtzea eragitea, Hipoteka Merkatuari buruzko 2/1981 Legea aldatzen duen 41/2007 Legean adierazitakoaren arabera.

Amortizazio Partziala: alde aurretik amortizatutako printzipalaren gaineko %2,5. %20a salbuetsita.

Amortizazio Partziala: alde aurretik amortizatutako printzipalaren gaineko %2,5.

MUGAEGUNERATUTAKO ZORPEKO EGOERAK ERREKLAMATZEAGATIKO KOMISIOA: ez ordaintzeren bat gertatzen den bakoitzean, eta bezeroari egoera erregulatzeko egindako gestio pertsonalizatua burutu ondoren (jarduketa hori egin dela ziurtatzeko moduan jasota geratuko da), Mugaeguneratutako Zorpeko Egoerak Erreklamatzegatikoko komisioa bat sortuko da, alderdi zordunaren kontuan likidatzekoa. Kontratu hau sinatu den egunean, komisio hori 30,00 eurokoa da.

URTEKO TASA BALIOKIDEA: %3,69.

BERANDUTZE INTERESAK: unean-unean indarrean dagoen diruaren legezko interesa 3rekin biderkatzearen pareko interes nominala. Informazio-ondorioetarako, berariaz adierazi nahi da eskritura honen egunean eta aldatzeko aukera dagoela baztertu gabe, berandutzaren interes-tasa %9koa dela. (Ez dira kapitalizatzen).

KALTEEN ASEGURUAREN ZENBATEKOA: 63.576,00 Euro.

MAILEGUAREN BERMEA: Hipoteka-bermeaz gain, gaur egungo edo etorkizuneko ondasunen gainekoa.

HIP. ERANTZ.: Interes arruntak: 13.030,44 euro. Berandutza-interesak: 39.091,31 euro. Kostu eta gastuak: 6.515,22 euro. Lotutako kredituak: 1.303,04 euro. Gehieneko interes arrunta hipoteka-ondorioetarako: %3,6.

ENKANTEAREN ZENBATEKOA: 147.800,00 Euro.

ERREGISTROKO AURREKO TITULARRA: ARRANCUDIAGA 99.SLU

IURRETA, 2016/04/12